

Bat-batean, pantailan nire lagun mina atera da, Leire, eta nire falta zeharo nabaritzen duela kontatzen dit (berak baleki... ) eta asko maite nauela. Hitz horiek... bera nire ondoan egongo balitz bezala sentitzen dut.

Gero, Unai eta Andoni atera dira, beti bezala, beraiek batera irribarre bategaz hitz egiten eta irribarre handi bat ateratzen didaten gauzak esaten. Barrezka nago, algaraka, eta begietatik tantak jausten. Barrezka eta tanten artean.

Bideoari esker bizitzeko gogo sortu zait berriz ere, eta pertsonarik zoriontsuena naiz, inoiz eduki ez dudana bizitzeko gogoagaz!

– Eta, gure oparia ere badaukazu. Helene, asko gustatuko zaizu!

Nire oparia zabaltzen dudana bitartean, zortzi begi ikusten ditut niri begira, pozez ni horrela ikusteagatik.

– Argazki kamera bat! Canon bat! Pasatu zarete! Eskerrik asko!

Canon bat, maitemindu egin nau! Dena ateratzeko gogo dut, kamerarekin kalera ateratzeko eta bizitzeko gogoarekin, bizia eta galdu dudana denbora berreskuratzeko.

Nire logela opariz bete da, opari polit askoz!

Azkenean, izugarritzko eguna izan da, ez beste egunak bezalakoa, orain poza nire gorputzean dago, mila gauza egiteko gogoarekin.

Zure bizitza bizi topera, bizitzeko gogo eduki beti, bizitza bakarra dagoelako.

“Urtebetetze berezi bat”

Silvia Peña Ullaran

13 urte – Derio

2012 – D kategoria

1. saria

